

ESKOLAKO ARBOLA

Testua: ANTONIO SANDOVAL

Irudiak: EMILIO URBERUAGA

Itzulpena: FERNANDO REY eta UXUE REY

Kartoi gogorrean egina. 22 x 22 cm. 40 or. 14 €.

Eskolako arbola (euskara)

ISBN 978-84-7681-954-8. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

El árbol de la escuela (gaztelania)

ISBN 978-84-8464-258-9. Obras de autor. Primeros lectores.

A árvore da escola (galegoa)

ISBN 978-84-8464-259-6. Demademora.

L'arbre de l'escola (katalana)

ISBN 978-84-8464-264-0. Obres d'autor. Primers lectors.

A árvore da escola (portugesa)

ISBN 978-989-749-067-5. Obras de autor. Primeiros leitores.

L'albero della scuola (italiera)

ISBN 978-84-1343-011-9. Gli albi d'autore. Primi lettori.

Eskolako patioan arbola bat zegoen. Bakarra.

Pelloc gustukoa zuen arbolaren inguruan lasterka

ibiltzea jolas-orduetan. Ondotik pasatzen zenean, adi begiratzen zuen, haren kontra tupust ez egiteko.

Behin, Pello gelditu, eta arbolari erreparatu zion.

Meharra zen, alanbrea bezain finak zituen adarrak;

eta ez zuen hosto lehor bakar batzuk besterik.

Pello hurbildu egin zen, eta enborra laztandu...


Ingurumeneko hezkuntzaren garrantzia eta naturarekiko harremanak ikasleen prestakuntzan eta hezkuntza komunitatearen lankidetzan duen garrantzia ageri-agerikoa da «Eskolako arbola» liburuan. Egitura zirkularreko istorio honek, hizkera soilaren bidez, ume baten eta arbola txiki baten arteko harremana kontatzen du: arbola haziz joanen da mutikoak emandako maitasunari esker, eta mutikoari jarraikiz besteek ere ematen dioten maitasunari esker. Hasieran mesfidati agertu arren, irakasleak berak onartuko du ikasleen proposamena, eta, horrela, botanikarien arretra erakarri.

Egileak orrialde bakar batzuetan laburtzen du urteak iraunen duen prozesua, eta ume talde ardura da arbola ongi zaindu eta babestu nahi izatearen sinboloa. Baina, haratago doa, proposamena beste eskola batzuetara iritsiko baita: haziak bidaia bat egiten du, eta, harekin batera, ingurumena eta planeta zaintzeko kontzientzia soziala.

Eskola bateko patioaren eremu murriztean gertatuta ere, Emilio Urberuagak -2011ko Irudigintzaren Sari Nazionala jasotakoa- zenbait ikuspuntutan jarrarazten ditu irakurleak, eta denbora iraganarazten du pertsonaien joan-etorrien bidez, aldaketa meteorologikoen bidez, arbolaren garapenaren bidez. Nabarmenak dira irudietan koloreak, eszena bakoitzaren adierazgarritasuna eta testutik kanpoko osagaiak ere, ikusizko irakurketa aberasten baitute.

"Liburu honetako arbola ikur bat da, agerian uzten baitu hezkuntza proiektu berri eta integratzaile bat benetan zaindu eta landuz gero hazi eta handitzen dela, beste eskola batzuetara ere iristen dela".

[Antonio Sandoval]



- **Gala:** ingurumeneko hezkuntza, natura, afektuak.
- **Adin egokia:** 6 urtetik gora.
- **Nabarmenezko modukoak:** botanika, zuhaitz motak, landareak, ingurumenarekiko kontzientzia, planetaren zainketa, emozioen hezkuntza; «[La Torre](#)» liburaren egilearena; «[El árbol de los sueños](#)», «[Las cuatro estaciones](#)» eta «[Sandia-gidaria](#)» albumen ilustratzailearena.

■ **Liburuaren aurrerapena:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/eskolako-arbola-eusk>

Antonio Sandoval

(Coruña, 1967)

Idazlea, ingurumeneko komunikatzailea eta ornitologoa. Zenbait libururen egilea: «¿Para qué sirven las aves?», «Las aves marinas de Estaca de Bares. Un diario personal», «BirdFlyway. Un viaje en familia por la Ruta de las Aves» eleberria. «Cuándo ver Aves en Galicia» liburuaren egilea beste batzuekin batera. Kolaboratzailea zenbait hedabidetan, eta La Voz de Galiciako Prensa Escuela lantaldeko kidea. Ingurumeneko hezkuntzako, ondarearen interpretazioko eta natur turismoko proiektu askotan hartu du parte, eta lotua dago, bestalde, natur ingurunea ikertzeko eta kontserbatzeko erakunde batzuei.

<http://antoniosandovalrey.weebly.com>

Emilio Urberuaga

(Madril, 1954)

2011n Irudigintzaren Sari Nazionala jaso zuen bere ibilbide artistikoagatik. 1980ko hamarkadan hasi zen lanean. Harrezkeroztik, haren lana munduko fundazio eta museo nagusietan dago. Manolito Gafotas pertsonaia ospetsuaren sortzailea da, eta argitaletxe askoren haurrentzako liburuetako irudiak ditu eginiak. Beste sari batzuk ere jaso ditu: Anaya-ren VII. saria, Serra d'Or kritikaren saria. The White Ravens zerrendan dago.



www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.pamiela.com

soltxate@pamiela.com